

Nu!



Irailaren 22an,
Autorik Gabeko Eguna



“Arraun, arraun
arraunlari gara”



sagardogintzarako tresneria



**nafarroa oinez
aldeko produktuak**

esparrago puntak
pikilo piperrak
orburuak
menestra

Alkartasuna

nekazal kooperatiba elkartea

alkartasuna@usurbil.com

Ugarte industrialdea 12 · 943 361 114 · 20170 USURBIL Gipuzkoa

Txirrikitutik !

Azkenaldi honetan maiz ari gara entzuten munduko hainbat lekuetan uholdeek eragindako kalteen berri. Guk aspaldian ez dugu horrelakorik jasan, baina ziur usurbildar askori 1953ko uholdeen oroitzapenak ekarriko dizkiela gogora halako berriek. NOAUAK argitaratutako egutegiko urriko argazkia duzue ondoko hau. Aliriko zubia urez gainezka ageri da, zubiaren zati bat ur azpian dagoelarik. Zubian bertan zenbait herritar uholdeei begira daude, txunditurik ziurrenik. Zubian bertan, bertaratu zirenen bizikletak ikusi ditzakegu. Orduan ez zen orain bezainbeste kotxe. 1953ko urriaren 15ean uholdeak Usurbil eta inguruko herriak hartu zituenetik mende erdia pasa da, 52 urte hain zuzen ere. Egun latz haietan Ori aibaian animalia eta traste ugari ikus zitezkeen ur korrontearen indarraren menpe. Baina Estatu Batuetan gertatu den moduan, egun gogorrenak uholdearen ondorengoak izango ziren.

Zalao Arnaiz Iburguren



Aliriko zubia, Zubieta, 1953
Jabetza: Kutxa Fototeka

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Joseba Tapiari entzundako kantuarekin osatu dugu titularra.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE _____ 4. ORR.

MUGIKORTASUNAREN ASTEA DATOR _____ 10. ORR.

HILERRI BERRIKO TANATORIOA, ZABALIK _____ 11. ORR.

Hilerri berrian hainbat lan egin eta gero, uztaila bukaeran zabaldu zen tanatorioa. Gonzalez Ehorztetxekoan ustez, Usurbilgoa tanatorio onenen parean da.



ERROIZPE ELKARTEAREN URTEURRENA _____ 12. ORR.

USURBILGO ARRAUNLARIKIN HIZKETAN _____ 14. ORR.

SANTUENENKO JAIK, BEGIBISTAN _____ 16. ORR.

ELBARRIENTZAKO LEHEN CRITERIUM-A _____ 17. ORR.

UDAKO JAIK, IRUDITAN _____ 19. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AITOR LANDALUZE

Eskolara!

Enaren migrazioarekin batera beste migrazio bat hasten da iraileko hasieran. Adin desberdinetako haurrak aldapan gora ikastolara egiten dutena. Batzuk oinez, besteak kotxez zein autobusez. Gainean astun itsura duten poltsak dituzte. Hamaiketakoak, liburuak, koadernoak, boligrafoak eramateko zorroak, bestelako zorroak..... Karrotan eraman behar dutenak ere ikusten dira. Udarari adiyo! esanez doaz, aldapan gora eta behera urtez urte ia egunero ikasgai bera pittinka ikasiz.

Horrela doaz ikasleak eskolara batzuk koloretan eta beste batzuk ordea, grisetan joan ziren: Eskolara sartu aurretik plazan lerrokaturik daude, instrukzioan bezala. Zapi bati kantatuz, serio, geldik, isilik. Eskola barruan maisu ilunak, askotan zorroztasunaren aitzakiaz beldurgarriak direnak. Ikasgai astunak eta koipetsuak irakasten dituzte gogoia beste nonbaiten, gehienetan ikasgelatik kanpo duten umeei.

Denboran urrutixeago, Arburu baserri zaharrean, Aginagako Goialdeko eskolan Bittori maixtra kokotxatik lurreraino iristen zaion soineko beltz luze eta zabal baten barruan sartuta, ikaragarri handia iruditu zaio Nikolas "eskasari" eskolako lehen egunean. Maixtra ia egunero ikusiz ohi-tuko da, ikara hori arinduz joango da eta ekainerako beste

ikasle gehienak bezala "aurreneko letrak", zenbaki batzuk eta santu baten edo biren mirarizko bizitza eredugarria ikastera iritsiko da.

Beste auzo batzutan ere gertatu izan da horrelako migrazioerik, eskola hauetara etortzeko kilometroak egiten zituzten ikasleak elkartzen ziren, Arratzainen, Egiioletandi, eta Gilisastin ere. Sariako kaletarrak ere Itzaokoekin batera Sariagoikoetxean bildu izan dira eskolan urte batzutan.

Zubietako bideetatik ere hurbiltzen ziren umeak Alamandegira hor izan baitzuten urte batzutan eskola. Bertan Kosmek arbelan klarionarekin, elkarlotu zein gurutzatzen zituen marrei soinua nola jartzen zaion irakasten ari zen bitartean Benantxik egurrezko pupitorean txukun eta zuzen eserita, nahiago zuen bidean bildutako urrak kontatu eta soinekoren poltsikotan gordetzea.

36/37 ikasturtearen hasiera latz hartan ezjakinteriak fusilatu zuen arte, izan zen Kosme Yaguez irakasle Zubietako eskolan. Orain, hor nonbaiten "Aingerutxo eta Kerubinen Eskola" delakoan dihardu Bittori maixtrarekin batera. Entzun dudanez kontentu dira, atsegina den eta berrikuntza pila bat dakarren Andereño Arantza laguntzera datorkielako, Ongi etorri!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Arantxa Mendizabali bihotzez

I965.ean, Santo Tomas egunean proposatu eta hurrengo irailean, Lasarten, sortu berri zen ikastolan, lehenengo andereño izan zintugun. Orduan ere, euskararen alde taldean ari ziren guraso eta laguntzaile egoskor batzuk medio. 41 ume, 4.000 pezetako soldata, asteroko bilerak eta egunerokoari heltzeko gogoia ekarri zenituen.

Baina, hau kontatu digutelako dakigu.

Federazioa artean, sortzeko zegoen, baina inguruko herrietan ikastolak sortzen ari ziren: Hernanin, Donostian, Pasaian, Andoainin...

Beldurrak airean, hilerio 200 pezetako kuota, garesti jarri zutelako. Garai hartan seme-alabak eskola nazionaletara dohainik eta Donostiara "pagoko" kolegiara, baka-rran batzuk bakarrik bidaltzen zituztelako.

Baina, hau kontatu digutelako dakigu.

Garai hartan, gure izan zinen, eta zure izan ginen. Gure Andereño Arantxa. Gerora ere, denborak kendu ez dizun aurre-izena! Lurrean, magalean, mendian... zure atzetik ibili zenituen txitak, gaur, zurekin dira. Azkenengoz 25. urteurreneko afarian egin genuen jolasean, 40. urteurrenera goaz. Eskerrak eman nahi dizkizugu. Gozo, babestuak sentitu baiki-nen Andre Joakina Enean; etxeko zapatilak jantzita, babes ofizialik ez eta Bele ikuskatzaileak gainean izan arren, zuek sortutako ikastolan. Jolas-lagun, hezitzaile, euskaltzale... gurekin izan zintugulako. Eta, jasotako, arreta, maitasunak eta euskararengana-ko begiruneak guregan dirautelako, muxu goxo eta isilenak zuretzat!

Erein zenuten hazia;

Landare berri, Landaberri,

Ugaldu eta hazi egin da

Lur berri, Luberri.

Ikastolak bizi diren artean, beti izango duzu goraipa-lekua gure herri txiki-tako historia-liburuetan.

Hau ez digute kontatu. Ez dira entzuna. Bizitutakoak baizik.

Hala dira, zurekin ginelako. Eta hala daude gordeak gure bihotzetan.

Zure ikasle izan ginenon izenean.

Eskerririk asko Arantxa. Eta, Beti arte.

Aitor Urdalleta, Olatz Illarramendi, Iñigo Bobillo, Arantxa Otaegi, Mailu Arruti, Lurdes Urruzola, Jon Mendiluze, Junkal Perez, M. Jose Espinal, Olatz Urdanpilleta, M. Jose Olaziregi, Ixiar Arteaga.

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

50 urte bete ditu Erroizpe elkarteak

Gure auzo txiki honetan, 1955an, tartean Aginagako eta Usurbilgo bakarren batzuk izan arren, Urdaiaga bailaran osatutako bizilagun talde batek Erroizpe Elkartea sortu zuen. Osasun Etxeko beheko soilarian kokatu zen errenta bat ordainduz eta bere aurreneko pausoak kirol elkarte bezala eman zituen, hain zuzen arraunean jardun zuten elkarteko zenbait bazkidek. Lokalaren zabaltze eguna, ohi den modura, bazkide guztiak hamaiketako ederrekin ospatu zuten.

Gaur egun, elkartea gastronomikoa bilakatu zaigu eta aurten 50 urteurrena betetzen denez, elkarteko zuzendaritzako kideak nolabait ospatu behar zela eta afari ospakizuna antolatu nahi izan dute. Honez gero, bat baino gehiagok ikusiko zenituzten herrian, afaria iragartzen zuten zabalduetako kartelak, deialdia irekia izan baita ez bazkideentzat bakarrik alegia.

Eguraldiak laguntzen badu eta eguna itxurosoa ateratzen bada, irailaren 17 an gaueko 21:00etan Erroizpe Elkartearen ondoan dagoen Berriola fabrikaren aurrekaldean jarriko dira mahaiak giro alaietan afaltzeko. Deskuiduan eguraldi kaxkarra egingo balu, mahaiak auzoko frontoian jarriko liriteke.

Mahaiak, aulkiak eta beste organizazio zenbait kontu-

tan udalak lagunduko du.

Jateko txekorri berruntzian preparatzekoak dira, 20 euroren ordainetan. Nahikoa haragia izango da, beraz lagun asko beharko da dena bukatzeko. Anima zaitetz eta zatoz!

Txartelak nahi izanez gero honako lekutan daude salgai: Erroizpe Elkartean, Aitzagan, Bentan eta Bordatxon.

Afaldu aurretik, elkarte aurreko plazaan, ordu pare bat lehenago giro polita jarriko dute trikitilariak eta joko batzutan (toka tartean) jolasteko aukera egongo da.

Gaua girotzeko afarian, eskola zaharreko bi bertsolari gerturatuko dira: Juan Jose Eizmendi "Loidisaletxe II" bata Lazkano bestea. Nahikoa algarra eragingo dute denon gozamenarako eta Laja eta Mikel berriz trikitia astintzen jarraituko dute erabat nekatu arte.

Bestalde, duela 50 urte elkarteari 56 bazkidek eman bazioten lehen arnasa, denborarekin gehienak hil egin dira eta beste batzuk bere bazkideetza utzi egin dute.

Gaur egun ordutik hona jarraitzen duten sei bazkide dira, hain zuzen hauek: Patxi Labaka Etxeberria (ohorezko bazkidea), Migel Muguruza Zubiria, Jose Mari Kamino Urruzmendi, Ignazio Labaka Etxeberria, Nikolas Izeta Olozaga eta Joxe Kamino Ibargoien.

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Gure andereño Arantxari begirunez

Gure andereño Arantxa joan zaigu, bai, baina ez gure oroimenetik. Hainbat haurren andereño izandakoa bai Usurbilen, baita Lasarten ere. Urte latz haietan, 1966. urtean hain zuzen, euskarak txokorik aurkitzen ez zuen garaian, Lasarteko Andre Joakinenean Lander ikastolaren urratsak ematen hasi ziren eta bertako lehen andereñoa izan zen. Usurbilen, aldiz, Luberri ikastolaren urratsak ematen hasiak ziren aldi berean.

Bi herrien arteko elkarlana beharrezkoa zen, etorkizunean ikastola sendo bat sortu ahal izateko. Beraz, bi herrien arteko gurasoei esker, uztarketa sortu eta Landaberri ikastola jaio zen. Hemendik aurrera, haur askoren andereño izaten jarraituko zuen eta jolas eta kantuen bidez hizkuntza goxoa maitatzen erakutsiko zuen.

Gero, Usurbilen Udarregi Patronatua ikastola bihurtzerakoan, han zen gure andereño Arantxa beti haurrei era goxoa erakusteko prest, orain dela hiru



urte arte.

Azken hiru urte hauetan lanaren ordainaren saria gozatzen ari zen unean (pintura, lagunen arteko solasaldiak, gimnasia, Ibai biloba zaintzen...) abuztuaren 24an joan zitzaigun, denak ezustean harrapatu gintuelarik.

Abuztuaren 28an bere inguruko lagunak, ahaideak, eta ikastolako lehen ikasle taldeak omenaldi xumea eskaini zioten Santa Barbara haitzetako Arantxaren betiko txokoa. Aurreksua dantzatu, bere lehen ikasle taldeak idatzitxo bat irakurri eta errautsak bota aurretik, bertso bat abestu zioten. Ekitaldi xumea bezain hunkigarria suertatu zen.

*Hodei beltzak oskarbi
bihurtzerakoan,
irrifarra gustura
daukagu ahoan,
dizdiraren beroa
sentitzerakoan,
gertutasun goxoa
sortzen da alboan,
horregatik Arantxa
daukagu gogoan.*

Aio Arantxa Mendizabal!

Irakurtzen ta idazten,
jolasten ta landatzen
irakatsi zenigun (bis)
ta ez dugu ahazten.
Makina bat une eder
genitun pasatzen
zuhaitzetako hostoak (bis)
ikusten erortzen.

Inor ahaztu gabe
beti denontzat tarte,
lasaitasuna ematen (bis)
zuk zenuen arte.
Momentu honetan eta
hitz hauen bitartez,
Eskerrik asko Arantxa (bis)
ta ikusi arte.

Doinua: Berak irakatsitako Bautista
Basterretxerena.

Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Konponketen beharra

Agur eta erdi NOAUAZaleok! Iraila batzuen-
atzat lanaldiaren hasiera izan ohi da, beste
batzuentzat liburu tartean murgiltzeko garaia.
Nire kasuan, NOAUAN lehen aldiz auzo honeta-
ko kronika idazteari ekiteko unea.

Ikasleak ikastolako plazan jolasten, autobusak
auzoko kaleetatik barrena, auzokideak aurrera
eta atzera... Egunerokotasunaren isla baino ez da
izango auzo hau datozen asteetatik aurrera.
Baina argi ibili! Alperro-Buru kalean hain zuzen,
ezbeharren ondorioz, duela ia bi hilabetetatik
bihurgune bereko bi lekutan baranda zatiak falta
dira eta farola bat apurtuta dago. Ordotik, behin
behineko zintak eta hesiak jarrita daude.
Bihurgunea berez arriskutsu samarra da autoan
edo motoan doanarentzat, desnibel handia baitu
eta nekez ikusi baitaiteke nor datorren kontrako
norabidean. Gune horrek konponketak behar



ditu, bertatik igaro behar duen inork kalterik
jasan ez dezan eta bere betiko itxura izan dezan.
Ia ahal bezain azkar, konponketa horiek gauza-
tzen diren. Amaitzeko, esan, lanean hasi zarete-
nok ahal duzuen hasiera onena izan dezazuela
eta oporrak hartzeaz zaudeteno, berriz, oporrez
goza dezazuela! Hurrengora arte.

Atxegalde



ARITZ
GORRITI



PAKO
AGUDO

Santuenea

Auzoko festak!

Kaixo, hemen nauzue oporraldia bukatu eta gero berriro ere auzoko albisteak zuengana-tzeko prest. Egia da jende guztiak ez duela abuz-tuan aukerarik izaten merezitako urteko oporrak egiteko, baina, onartu behar da hilabete honetan gure auzoa bizitzarik gabe gelditu dela. Beraz, irai-la hasiera honetan askori kostatuko zaigu berriro ere egunerokora itzultzea.

Eskerrak iraila hasiera honetan estropadaz gain baditugula beste zenbait kontu animatzeko. Auzoko festak! Aukera polita beraz oraindik uda joan zaigula onartzen ez dugunontzat azken txan-pa egiteko. Aurten, jakingo duzue, hilaren 16, 17 eta 18an izango dira auzoko festak. Aldaketa ugari jasan behar izan dituzte gure festak ere baina, ze demontre, oraindik bizirik daude. Aurtengoak, nere ustez, auzotar guztion gustoko-ak izateko festak dira. Egun gutxi baino nahikoak eta ekintza oso ezbesdinekin. Gauza berri asko aurkituko ditugu, erakustaldia Benito Rossen eskutik, Heli model... Baina betiko gauzetaz



Benito Ross

ahaztu gabe, mus txapelketa, bazkari herrikoia... Dantzarako ere ez zaigu musikarik faltako. "Mendeku Itxua" talde gazte eta kitarreroarekin, "Laurkin" taldeko fandangeroekin eta gure "Dj Larraren" musikarekin udan ikasitako mugimen-du guztiak auzotarren aurrean aurkezteko aukera izango dugu. Besterik gabe, jaietaz disfrutatu eta ondo ondo pasa.



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Oilasko-biltzaile terroristak?

Galdera hau bati baino gehiago pasako zitzaion agian burutik, Galardiko gasolin-degian, errepidez alde batera eta bestera guardia zibilez inguratuta ginela ikusi zuenean.

Oilasko-biltzaile egunean, Aginagatik Txoko-aldera bueltan gontozela, Galardin lau patrol sartu ziren. Ni oilaskoak makilatik zintzilik har-tuta nindoan. "Ez da posible hauek guregana etortzea" pentsatu nuen. Bidea gurutzatzen hasi eta haiek ere gurekin batera. Nik berriz, "ez da posible!". Itxaferoak zeramazkitenak eta trikitilari eta panderojotzaileari. "Tu! Contra la pared". "Izurrai". Panorama ederra gelditu zitzaigun: batzuk errepidearen alde batean eta besteak "Contra la pared". Niri alde onean egotea egokitu zitzaidan, nonbait, oilaskoak makila batetatik zintzilik eramatea ez zitzaien susmagarria iruditu.

Besteei tokatu zitzaien alde txarrean egotea: karnetak eskatu (askok ekarri ez, nork pentsatu-ko zuen ba hura gertatuko zela?), galderak egin eta galderak egin... 45 minutura udaltzain-burua

etorri zen arte. Gu itxaferorik gabe, arrano bel-tzaren banderolarik gabe... eta festarako gogo handirik gabe gelditu ginen egoera lotsagarri haren ondoren. Gainera trikitilaria, "ni se te ocu-rra tokar la trikitixa" esanez agurtu zuten. Primeran!

Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat, Txoko-aldera iristerako berreskuratu genuela indarra eta alaitasuna. Haiek izorratu behar ote zizkiguten ba festak?

Hau izan dugu festetako "anekdotatxoa", orain arte inoiz gertatu ez zaiguna eta berriz inoiz ez gertatzea espero duguna.

Gainerantzean festak ederki joan dira. Eguraldia ederra eta giroa hobea. Baina aurtengo-z, datorren urterarte itxaron beharko dugu berriz gure auzoko festa hauetaz gozatzeko!

San Estebango errifen zenbaki saridunak:
ZUMETAN AFARIA-----3621
SALTZIPIN AFARIA-----6306

Oporraldiak bukatuta

Abuztuko oporraldiak bukatu eta hemen agaituzue "pilak kargatuta" berriro zuen artean albisteak kontatzeko. Benetan oso ondo etortzen dira egun batzuk egunerokotasunetik deskonektatzeko, mendian, hondartzan edo besterik gabe ibiltzeko eta gorputzeko toxina guztiak kanporatzeko eta umore onarekin eguneroko lanari aurre egiteko.

Igandean estropadak ikusten izan nintzen. Aurten nere gustuko trainerua ez dabil bere onenean baina animatzeko motibaziorik ez nuen falta. Hantxe izan ginen goitik behera hori hori jantzita gure mutilak goraiatzan. Oso erraza baita ondo dabiltzanean bandera hartu eta kamiseta janztea baina ordu bajuetan behar izaten dira animo beroenak eta hor ikusten da benetako afizioa.



Gaia aldatuz, auzoko festak ere gainean ditugu eta hasi animatzen gorputzak eta bihotzak. Gora San Praixku eta aginarrak!

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Zorionak Oiartzun

Aurtengo errebote txapelketak berrikuntza pozgarri bat ekarri digu. Kontu jakina da 36ko gerraren ondoren Gipuzkoako bi herritan baizik ez dela errebotean jokatu: Billabonan eta Zubietan. Ba, usadio galdua berreskuratuz, aurten Oiartzunen errebote plaza berregin dute eta partidak jokatzen hasi dira. Plaza oso itxurosoa da: pareta bakarrekoa, Zubietakoa baino hamar-hamabost bat metro luzeagoa, eta oso ondo kokatua herriaren gune-gunean. Plazaren ingurua ere ederra da, eta partiduak ondo ikusteko aukera ematen du.

Joan den irailaren 4an jokatu ziren lehenbiziko partiduak plaza berritu horretan. Oiartzunek, tartean zubietar baten parte-hartzearekin, Angeluren kontra jokatu zuen lehenbiziko partidua, eta bai ondo hasi ere!: 13-4 ira-

bazi zuten. Bigarren partiduan, Zubietak eta Billabonak jokatu zuten elkarren aurka, eta Billabonak irabazi zuen.

Baina, tira, hala ere, Oiartzunen bildu ginen errebote zaleok bagenuen gustura egoteko motiboa. Izan ere, oso garrantzitsua baita errebotea beste herrietara zabaltzea. Ea Oiartzunen bidari beste herriren batek ere heltzen dion, erreboteak oihartzun handiagoa izan dezan. Adibidez, ondo legoke Usurbilek ere erreboteko plaza berreskuratzea.

Albiste onarekin abiatu da, hortaz, aurtengo errebote txapelketa. Zortzi talde ari dira lehian. Eguraldia lagun, lau edo bost bat igandetan errebote partiduak izango dira Zubietan, Oiartzunen eta Billabonan. Hortxe duzue igandeguardeak pasatzeko aukera eder bat.

Zubietak



**XABIER
ARREGI**

Badator Mugikortasunaren Astea, “Lanera, autorik gabe” lemapean

Hirugarren urtez jarraian, Mugikortasunaren Astea egingo da Uurbilen. Irailaren 16an hasi eta irailaren 22an amaituko da astea, Autorik Gabeko Egunean.

Bizikletan ibiltzea, garraio publikoa erabiltzea, autoan beste batzuekin joatea, oinez ibiltzeko ohitura osasungarria berreskuratzea... Helburu horietan oinarritzen dira Mugikortasun Astea eta Autorik Gabeko Eguna ekimenak.

Herritarron esku dago helburu hauek denak betetzea. Baina baliabideak ere garrantzitsuak dira. Horretan, instituzioek esateko asko dute. Bide gorri sareak osatuz, garraio publikoa sustatzeko oinarriak jarritz...

Urrats batzuk eman dira. Baina oraindik egiteko asko dago.

Garraio publikoaren erabilera areagotzeko, adibidez, eskura izan behar ditugu geltokiak. Irisgarritasuna erraztu, alegia. Gaur egun, Santuenea eta Etxealdia auzoetakoei urrun geratzen zaie bus-geltokia. Hori gaingitu arren, aterpe berri bat eraiki nahi da N-634 inguruan. Proiektua egingo da eta Foru Aldundiaren erantzunaren zain dago Udala.



UDARREGIKO IKASLEAK, IAZ EGIN ZEN EKITALDI BATEAN.

Era berean, kaxkoko trafikoa urruntzearen, bide berri bat eta bus-geltoki berria eraikiko dira San Inazio auzoan.

Neurri horiekin batera, bide gorri gehiago aurrekusi dira.

Iaz, Aginagako erriberan, oinezkoentzat nahiz bizikletentzat bide berriak ireki ziren. Epe laburrean, Lasarte-Oriatik Aginagarako bide gorri modukoa egin nahi da. Bide batez, Zubieta eta

Txokoaldetik barrena zirkuitua osatuz.

Horretaz gain, oinezkoentzat nahiz bizikletentzat irisgarritasuna eta segurtasuna bermatu asmoz, espaloiak eraikiko dira Kalezarren, Santuenean, Zubietan, Txikierrdin eta Aginagan. Hala nola, bizikletak aparkatzeko gune berriak sortuko dira. Ikastolan, esate baterako. Abiadura mantsotzeko oztopoak ere jarriko dira Udarregi inguruan.

Mugikortasunaren Astea, egunez egun

Irailak 16, ostirala

-“Lanera, autorik gabe” lemapean zirkulazioa itxi egingo da hainbat kale-tan. Santuenean ere, kale bat itxiko da.

- Arratsaldeko 18:00etan, zirko tailerra Santuenean.

Irailak 17, larunbata

- Santuenea auzoa ibilgailuentzat itxita (kale bakarra utziko da autoentzat).

-Santuenean, 18:30ean, trial ikuskizuna Benito Ross munduko txapeldunaren eskutik.

Irailak 19, astelehena

-Donostialdera nahiz Zarautz aldera, garraio publikoan lanera doazenei bidaia-txartelak doan emango zaizkie.

Txartela eskuratzeko Udaltzaingoa eskatu behar da: 943 36 11 12.

Irailak 20, asteartea

-Garraio publikoa erabiltzen duten usurbildarrei doaneko txartelak banatuko zaizkie (Txartela eskuratzeko Udaltzaingora deitu: 943 36 11 12).

-Bizikletan ikasteko aukera kiroldegian. Bizikletentzat aparkaleku berriak ezarriko dira Artzabal inguruan.

Irailak 22, osteguna
Autorik Gabeko Eguna

-Goiz partean, trafiko murrizketa eta hitzaldiak Udarregi Ikastolan.

-Arratsaldez, txistulariak, trikitalariak.

-15:30/19:30. Puzgarriak frontoi atzean.

-17:00. Txokolatada Askatasuna Plazan. Ondoren, buruhandiak.

-19:30. Kiroldegi aurrean bizikleta zozketa.



Uztaila bukaeran zabaldu zen tanatorioa

Hilerrri berria berregokitua izan da. Orain, tanatorio zerbitzua eskaintzeko moduan da. Lehen, Errekaldeko tanatorioa zen alternatiba bakarra. Baina, askotan, gainezka izaten zen. Egoera horrek sortzen zuen deserosotasuna zuzentzera dator tanatorio berria. Salome Portu zinegotziak azaldu digunez, Usurbilen hilobiratua izateko eskubidea duen orok erabili ahal izango du.

Legediak ezarritako arauetara egokitu behar izan da tanatorioa. Hori dela eta, Udalak ahalegin berezia egin behar izan duela aitortu digu Salome Portuk. Gorpua jasoko duen gela, esate baterako, errefrigerazio-sistema batekin osatu behar izan da. Senide eta lagunentzako egongela, aldiz, eroso izateko baliabide guztiekin atonduta dago.

Usurbilen hilobiratua izateko eskubidea duen orok erabili ahal izango du. Hori bai, egun bakoitzeko 90 euro ordaindu behar dira.

Tanatorio onenen parean

Gonzalez Ehortzetxera jo dugu iritzi eske. Victor Gonzalezen esanetan, *"horrelako tanatorio gutxi dago gure inguruan. Tanatorio onenen parean dago"*.

Gonzalezek esan digunez, *"zerbitzu hau martxan jartzeko premia handia zen"*. Horrelako ekipamendu ugari ezagutzen ditu Victor Gonzalezek ete bere ustez *"Usurbilgoa atsegina egiten da, bista ederrak ditu"*.



SENIDE ZEIN LAGUNENTZAKO PRESTATU DEN EGONGELATIK SAN ESTEBANGO KAXKOA IKUS DAITEKE.



EZKERREKO IRUDIAN, HILKUTXA JASOTZEKO GELATXOA.

Dirulaguntza eskaerak egiteko epea ireki da

Berriki, dirulaguntzen inguruko lege berria betearaztea derrigortu zaie udal guztiei. Beraz, aurrerantzean, dirulaguntzak beste era batean banatuko dira. Honela: Udalak deialdi bat egingo du eta eskaerak egiteko hilabeteko epea irekiko da. Aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu zen irailaren 7an.

Neurri honek kultur eta kirol talde denei eragiten die. Hala nola,

Ongizate zein Euskara zerbitzuetik dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarre eta gizabanako guztiei ere. Hitz gutxitan, dirulaguntza bat eskatzen duen orori.

Deialdia, irailaren hasieran

Irailaren 7tik hasita, beraz, dirulaguntza eskaerak egiteko hilabeteko epea izango da.

Gizarte eragileentzat gaia ez da berria. Martxoan jaso zituzten ordonantzen lehen zirriborroak.

Lanbide bat ikasteko aukera

Lanbide Hastapeneko tailerretan matrikulatzeko garaia amaitzera doa. Ikastaro hauek 16-21 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude. Bereziki, ikasten ari ez direnei edota lan-gabezia dauken gazteei.

Izena emateko epea irailaren 15ean amaituko da. Gogoan izan, ikasketen ondoren praktikak egiteko aukera izango dela.

Informazio gehiago, udaletxean edota telefono zenbaki honetara deituz:

943 37 19 51.

50. urteurrena ospatzeko afaria antolatu du Txokoaldeko Erroizpe elkarteak

Irailaren 17an ospatuko du Erroizpe elkarteak 50. urteurrena. Afaria irekia da, edonork har dezake parte. Txartelak jada salgai daude Aitzagan, Bentan, Bordatxon eta Erroizpe elkartean bertan.

Menua, aparta: txekorra burduntzian osorik erreta. Aurretik, pikatzeko ugari. Postrea eta kafea ere izango dira.

Osagarriak, nola ez, atseginak: Laja ta Mikel trikitalariak eta Lazkano eta Loidisaletxe bertsolariak.

Afaria izango da ekitaldi nagusia. Oroimenerako tarterik ere izango da. Baina ospakizunak arratsaldean hasiko dira. Bertarutzen direnek toka eta antzeko jokoetan parte hartzeko aukera

izango dute (baina ez da txapelketarik egingo).

Elkartearen etorkizuna

Egoitza ez da inoiz elkartearena izan. Errentan izan dira beti. Duela hamar urte, ordea, hainbat tirabira izan ziren lehengo jabearekin. Epaile batek 10 urtetan erabiltzeko luzapena eman zien Erroizpekoiei. 10 urteko epe hori iaz amaitu zen. Etxeko nagusiak eraikinari prezioa jarri zion baina gehiegitxo zen elkartearentzat. Erosteaz gain, eraikina berritu beharra dago-eta. Honen aurrean, bi etxebizitza eta elkarte berria egiteko proposamena egin zuen elkarteko zuzendaritzak. Era horretan, posible zen eraikinaren erosketari aurre egitea.



INAUGURAZIO EKITALDIKO ARGAZKIA, 1955. URTEKOA.

Proposamen honekin Udaletxera jo zuen elkarteak. Baina bi beharrea, etxebizitza gehiago egiteko aukera aurreikusi du Udalak. Hizketan dira jabea eta Udala. Formula oraindik zehaztu ez bada ere, Erroizpek toki berean jarraitzeko aukera asko ditu.

Ospakizuna, irailaren 17an

Afaria Berriolako kanpoaldean egingo da (euria egingo balu, ordea, Txokoaldeko pilotalekuan egingo litzateke afaria).

Txartelak Erroizpe elkartean, Aitzagan, Bentan eta Bordatxon daude salgai. Prezioa, 20 euro.

Eguna: irailak 17.

Ordua: 21:00etan, Berriolan.

Bertsolariak: Loidisaletxe, Lazkano.

Trikitalariak: Laja ta Mikel.

Antolatzailea: Erroizpe elkarteak.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

Juan Altuna, berriz ere nagusi

San Bartolometan Elgoibarren egiten den abelburu txapelketa oso ezaguna da. Iaz bezala, aurten ere Zelaiaundi baserriko abelburuak nabarmen nagusitu dira.

Juan Altunak aurkeztutako abelburuak sei maila desberdinetan nagusitu ziren. Sara izeneko abelburuarekin, gainera, txapeldunen arteko txapeldun saria irabazi zuen Zelaiaundi baserrikoak.



JUAN ALTUNAREN ABELBURUAK NAGUSITU ZIREN GIPUZKOAKO SARIAN.

Esteban Lertxundi, Donostian omendua

Donostiako XX. Sagardo Egunean, Barkaiztegi sagardotegiko Jose Mari Irizar eta Saizar sagardotegiko Esteban Lertxundi omendu dituzte.

Sagardo banaketa eten ondoren, Jose Mari Irizar eta Esteban Lertxundiri Sagardo Eguneako ikurra eman zieten, plazan bildutako jendearen txalo artean.

Irailean, arratsaldez irekiko da KzGunea

KzGunea itxita egon zen abuztuan. Irailaren 1etik aurrera, ordea, irekita daude KzGuneako ateak.

Uda baino lehen, egun osoz irekita izan da KzGunea. Baina, aurreantzean, egun erdiz baino ez da zabalik izango.

Irailean, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara irekiko da KzGunea. Ikastaroen eskaintza zabala izango da ikasturte hasiera honetan.

Buruntzaldeko Udalek begirale ikastaroa antolatu dute

Aisialdiak gero eta garrantzi handiagoa du gure inguruan. Haur-txokoak, aste-buruetako ekintzak, Eskola-Kirola, udalekuak... hainbat eta hainbat jarduera antolatzen da herrian haur eta gaztetxoei zuzenduta, eta euskaraz. Esparru honetan lan egin nahi duten gazteentzako formakuntza eskaintzea da ikastaro honen helburua.

Buruntzaldeko Udalek antolatu duten ikastaroa urriaren 8an hasiko da. 200 orduko ikastaro hau Hernanin eskainia izango da. Saiোক larunbatetan izango dira, goizetan 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 15:30etik 19:30era.

Baina izena ematen duten ikasleek lau asteburu igaroko dituzte atxerpetxe batean (larunbat goizean abiatu eta igande arratsalderarte). Esan dugun bezala, ikastaroa urriaren 8an hasi eta maiatzaren 13an amaituko da.

Ikastaroaren amaieran, titulua

Ikastaro teoriko hau eginda, praktikak burututa eta memoria aurkeztuta, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua" jasoko dute ikasleek.

Ikastaro teorikoak 200 ordu ditu eta saioetara joatea derrigorrezkoa da. Gehienez 3 hutsegite egin daitezke (3 larunbat).

Atal praktikoak 120 ordukoa izan behar du, eta norberak bilatu behar du non egin praktikak (Aisialdiko Eskolak horretarako laguntza ematen du). Praktikak 2005-2006 ikasturtean, udan edota 2006/2007 ikasturtean egin ahal izango dira.

Informazio gehiago Usurbilgo Udalean, 943 37 19 99 telefono zenbakian (Euskara zerbitzuan).



Aisialdi Gida berria ere argitaratu dute Buruntzaldeko Udalek. Usurbilen 750 ale banatuko dira. 16 urteko azpikoek etxean bertan jasoko dute.

Ikastaroan izena emateko baldintzak

-18 urte beteta izatea (edota 2005-2006 ikasturtean zehar betetzea).

-Euskalduna izatea.

-Izen-ematea, Udaleko Euskara Zerbitzuan.

-Epea: Irailaren 23a bitartean.

-Prezioak: 295 euro (190 matrikula + 105 aterpetxeko lau egonaldiak) Buruntzaldeko gazteentzat.

485 euro (380 matrikula + 105 aterpetxeko lau egonaldiak) gainerakoentzat.

Ordainketa: 3035 0084 77 0840018773 Euskadiko Kutxa (izen-abizenak jarri).

Dokumentazioa: argazki bat, dirusarre-

raren agiria, nortasun agiriaren fotokopia, matrikulazio-fitxa beteta (Euskara Zerbitzuan jaso ahal izango duzu).

Dokumentazio guztia entregatzea nahitaezkoa da matrikula egintzat emateko.

Oharrak

- Ikasle kopurua mugatua da, beraz, matrikula-dataren arabera osatuko da taldea. Buruntzaldekoek lehentasuna izango dute.

- Bajak eta diru-itzulketak: ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago jakinaraziz gero, matrikula osoa itzuliko da. Hala egin ezean, % 80 soilik itzuliko da. Ikastaroa hasita, ez da dirurik itzuliko.

Patxi Seguroak beharrezko tratamendua jaso dezan exijitu du Udalbatza Plenoak

Axilotua izan zenetik ia sei urte pasa direnean, Patxi Seguroaren epaiketa dela-eta, Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2005eko abuztuaren 5ean eginiko bilkuran, honako mozio hau onartu zuen gehiengoz:

1. Patxi Seguroa hainbeste denbora epaitu gabe edukitzea bidegabekeriatzat jotzea.

2. Bere osasun egoeraz kezaturik, lehenbailehen beharrezko tratamendua egin diezaioten exijitzea.

3. Justizia administrazio frantsesak orain artean Patxi Seguroarekiko izan duen trataera ikusita, bere eskubide guztiak bermatuko dituen epaiketa izan dezala exijitzea.

4. Horrela izango ez balitz, udal honek beharrezko neurriak hartuko litzuzke dago-kion administrazio eta epaitegiari ardurak eskatzeko.

5. Erabaki hauek Justizia Ministro frantsesari igortzea eta komunikabideen bidez, herritarrek informatzea.

Karlos Moises Martin, auziperatua

ETarekin kolaboratzea auzipetu ditu Grande-Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak, Efe berri agentziaren arabera. Horietako 28 espetxean daude (bat Frantzian) eta bi sasia. Atzo eta herenegun hartu zien deklarazioa preso dauden 27ri, tartean, Karlos Moises Martini eta behin-behinean aske dauden hamarri. Guztiek egotzitakoa ukatu zuten.

Plaza libreak daude Haur Eskolan

2005/ 2006 ikasturterako hainbat plaza libre geratu dira Kalezarren aurkitzen den Haur Eskolan.

Plaza hauek 2004 urtean jaiotako haurrentzat zein 2005 urtean jaio edo jaioko diren haurrentzat izango dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 943 37 40 61 telefono zenbakira (goizez, 9:15etik 13:00ak bitartean).

Usurbilen ere badira arraunlariak

Pasai San Pedron genuen hitzordua jarria. Abuztuaren 29an arratsaldeko 19:30ean, hantxe ginen: Sanpedrotarra Arraun Elkartearen egoitza aurrean. Arraunlari batzuk atarian, itsasoratze-ko irrikitan. Gure protagonistak ez dira oraindik iritsi. Bapatean, begibistan, gazte gihartsu bat, poltsa eskuan. Kostata baina ezagutu dugu azkenean. Alex Udabe da. NOAUA!ko kronista zena, zeharo aldatua. Duela bi urte hasi zen arraunean eta izugarritzko aldaketa eman du. Handik gutxira, Urko Manterola iritsi da (hau ere, orriotan kronista izandakoa). Honek ere, beste planta bat du. Entrenamendu asko eta parranda gutxi egitearen ondorioa.

Sakrifizioz betetako bizitza da arraunlariarena. Azaroaren erdialdean hasten dira entrenamenduak. Denboraldia amaitzen den arte, pakerik ez da. Alex, Urko eta beste sei usurbildar topatu ditugu Pasai San Pedroko Libian. Egunero entrenatzen dute. Lanetik atera eta entrenamenduetara. Jai-egun bakarra, asteazkenean. Horrela, urte osoan. Festarako, beraz, denbora gutxi izan dute. Denboraldia amaitzear denez, urrian iritsiko zaie atsedena. Baita festarako unea ere. Arraunlarien jai nagusian bilakatuko ote da Aginagako San Praixku?

Zortzi usurbildar San Pedron

Morea da Sanpedrotarra Arraun Elkartearen kolorea. Libia, traineruaren izena. TKE Liga da, arraunean, maila gorena. San Pedro, dena den, Euskal



PASAI SAN PEDROKO USURBILDAR ARRAUNLARIAK. IRUDIAN SEI AGERI DIRA, BESTE BI FALTA DIRA.

Ligan aritu da. Aurten, inoiz baino arraunlari gehiago izan dituzenez, bi Libia itsasoratu ditu San Pedrok. Euskal Ligako A Mailan, bat; Euskal Ligako B Mailan, bestea. Harritzekoa bada ere, San Pedroko arraunlarien artean usur-

bildarrak dira nagusi. Pentsa, guztira, 34 arraunlari dira eta horietako zortzi usurbildarrak dira: Aitor Alkorta, Alex Udabe, Urko Manterola, Igor Matxain, Iñaki Portullarrume "Arrazpi", Berdaitz Larrarte, Jon Lopez eta Gorka Arruti.

Euskal Ligan ere, maila altua

Entrenamenduak iazko azaroan hasi ziren arren, Mutrikuko ikurrinaren hasi zuen arraun denboraldia San Pedrok. Ekainaren hasiera zen, eta moreen indarrak neurtzeko lehenengo proba izan zen hura. Santixabel egunaren bueltan Pasaiako badian egin zen estropadan, Euskal Ligako A Mailan sartzeko txartela eskuratu zuten moreek. Helburu nagusia bete zuten.

Azkenean, zortzigarren postuan amaitu dute Euskal Ligan. San Pedroren traineru nagusian, lau usurbildar aritu dira: Urko Manterola, Alex Udabe, Aitor Alkorta eta Igor Matxain.

Alex Udabek esan digunez, *"uste baino maila handiagoa dago Euskal Ligan"*. Estropada batzuetan txukun ibili dira, beste batzuetan pattal; azkenean, Libiakoak zortzigarrenak izan dira Euskal Ligan.

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA · 37 · KALEZAR

PATRI
JATETXEA

943 362 795

Zendoia

Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71

Kontxako Bandera, ametsa baino gehiago

Liga bukatuta, Kontxako Banderako lehen jardunaldia prestatzen ari zirela hurbildu ginen Pasai San Pedrorra. Ilusioz, estropada polit bat osatzeko gogoz sumatu genituen. Urko Manterolaren esanetan, *“arraunean aritzeko toki egokiena da Kontxako badia. Gainera, jende asko biltzen da eta giro polita izaten da”*. Irailaren 1eko klasifikatortarian lehiatzeko aukera izan zuten, baina Kontxarako txartela garesti zegoen eta estropadatik kanpo geratu ziren San Pedrokoak.

Esan dugu. Bi traineru uretaratu ditu aurten Sanpedrotarra Arraun Elkarteak. Bi Libia. Inoiz baino arraunlari heldu gehiago dituztelako elkartean. Iazko taldearen oinarria

mantendu egin dute aurten eta datorrenean ere hala gertatzen bada, etorkizunean gauza politikak egin ditzake koardila honek.

Zergatik San Pedron?

San Pedron zortzi usurbildar? Nolatan? Hori da burura etorri zaigun lehen galdera. Alexek eta Urkok azaldu digutenez, arraunzaletasuna txikitatik jaso zuten. San Pedrorako bidea, ordea, Aitor Alkortak argitu ei zien: *“Pasai San Pedron zegoen Aitor. Egunen batean, trainerua itsarasatu eta buelta eman behar genuela esaten zigun”*. Egun hori iritsi zen. Igor Matxain, Alex Udabe eta Urko Manterola entrenamendu batzuk egiten hasi ziren. Konturatu orduko, San Pedroko fitxa egina zuten. Gaur, puntako kirolarien planta dute denek.



SAN PEDROKO LIBIA.

Arraunlari gehiago ere badira

EKT Ligan, maila gorenean, Arraunlari bakarra dugu: Iñaki Errasti. Astilleron, hain zuten.

Euskal Ligan, Zumaia izan da jaun eta jabe. Zumaiaiko lehen traineruan aritu direnen artean, Jon Agirrezabala gaztea. Imanol Zarauz, aldiz, Donostia-Arraun taldearekin lehiatu da. Hau ere, Euskal Ligan.

Kontxan irabaztearekin amesten du Iñaki Errastik

Iaz, dena utzi eta Astillerora joan zen Aginagako arraunlaria. Lana, betiko ontzia (Oriokoa), familia... Erronka ez zen nolana hikoia. Orain, poz-pez dago hartutako erabakiarekin. Uste baino hobeto moldatu da Kantabriako herri txiki hartara. Arraunean ere, primeran aritu da. Inoizko denboraldi txukunena osatu duela esan digu. Baina Kontxako Banderarekin borobildu nahi du hain ondo hasi duen urtea.

Kontxako Bandera behar bezala prestatzeko, Donostiako Costa Vasca hotolean dira Astillerokoak. Horien artean, Iñaki Errasti. Gustura dago klubak eta taldekideek egin dioten harrerarekin. Okerrik ez bada, datorren urtean ere

Astilleron jarraituko du Iñakik.

Egia esan, orain arte lan txukuna osatu du Kantabriako ontzi honek. Errastik esan digun bezala, *“EKT Ligako zortzi bandera irabazi ditugu eta gure eskuetan dago Liga. Kantabria eta Espainiako banderak ere irabazi ditugu. Orain Kontxako Banderarekin erremata-tzea falta zaigu”*.

“Ontzia ondo doa”

Castrok azken estropadetan fin aritu da baina Errasti lasai dago: *“gauzak ondo egin ditugunean diferentziak markatu ditugu. Ontzia ondo doa eta irabazteko mentalizatuta gaude”*. Irailaren 11n ikusiko dugu ea Errastiren ametsa egi bihurtzen den.

Errasti ez ezik, beste dozena bat



IÑAKI ERRASTI, ASTILLEROKO

ARRAUNLARIA.

arraunlari badira Usurbilen. Pozgarria egitean zaio Iñakiri: *“Gehienak ezagunak ditut, gainera. Ni hasi nintzenean ez zen Usurbilgo arraunlaririk. Orain, gazte asko hasi dira eta hori ona da arraunarentzat, jendeak gehiago bizi duelako”*.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALARUNTZAK

Arlztibtxo 8, behea · 943 663 548 · 609 888 021

MAHUKA
ETXEBERRIL KALLA, 3-942 301 100

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA


Santueneko jaietan, inoiz baino ekitaldi gehiago

Udako azken arrastoa nola, halaxe iristen da jai-giroa Santuenea auzora. Aurten, inoiz baino osatuago dator jai egitaraua. Umeentzako ekitaldiak izango dira nagusi. Baina ohi bezala, gastronomiaz, kirolaz eta musikaz gozatze-ko aukera ere izango da.

Trial erakustaldia

Ekitaldi denen artean aipatzekoa da Benito Ross kirolariak eskainiko duen trial erakustaldia. Munduko txapelduna da eta larunbatean izango da Santuenean, arratsaldeko 18:30ean.

Igandean amaituko dira festak, auzoko piperrekin egingo den dastaketarekin.



PIPER-DASTAKETAREKIN AMAITUKO DIRA FESTAK.

Jaiak, egunez egun

IRAILAK 16, OSTIRALA

18:00 Umeen jolasak (tailer zirkoa).

19:00 Buruhaundiak.

19:00 Txaranga.

19:00 Sardin jana.

23:30 "Mendeku Itxua" taldearen kontzertua.

Ondoren erromeri giroa Laukin taldearen eskutik.



Mendeku Itxua

IRAILAK 17, LARUNBATA

10:30 Umeen jolasak (karta, gazteluak, e.a.).

13:00 Buruhaundiak.

14:00 Haurren bazkaria.

15:30 Umeen jolasak (gazteluak).

16:00 Mus txapelketa (Izen ematea 15:30ean izango da).

17:30 Txokolatada.

18:30 Benito Ross-en trial erakustaldia.

19:00 Buruhaundiak, txaranga.

21:30 Afari herrikoia.

23:30 Larra Djren emanaldia.

IRAILAK 18, IGANDEA

12:00 Toka txapelketa.

13:00 Zaldi proba, astoarekin.

13:00 Buruhaundiak trikitixarekin.

14:30 Bazkari herrikoia. (Txartelak Ibai Ondon eta Zahar Egoitzan).

17:00 Heli Model.

19:00 Buruhaundiak.

19:00 Piper-dastaketa.

19:00 Kalejira trikiti doinuez alaiturik.

Antolatzailea: Ibai-Ondo Elkarte.

Knk l
 - L ntz r
 - Gz n zk n rr p
 - ll ur ntz k
 - Fix r k h r
 luzun k
 Zubiarenean, 3 33 17 7

ARRAINDEGIA
PELLO
 Jai: xKI /
 T13 21
 JSU L

M N
CENILL
 - kr- ntu r i
 - ll lk
 - rzt lz- l u k
 - ntu r- l u k r h r
 Arisitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
 MOBILA: 629 46 09 66

ZUBIARRRENEA 4, USURBIL
 I le a p a i n d e g i
 mistoa
 943361951

Irailaren 18an egingo da Elbarrituentzako Lehen Criterium-a

Irailaren 18an txirrindulari lasterketa ikusgarri bat ikusteko aukera izango dugu. Kirolegi aurretik abiatuko da lasterketa, eguerdiko 11:00etan. Minusbaliotasunen bat duten txirrindulariak izango dira protagonistak. Baina ez da lasterketa bat gehiago izango. Elbarrituen Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa izango da jokoan. Partehartzaileen artean, noski, Amador Granado usurbildarra izango da.

Irailaren 17an, erlojuaren aurkako Gipuzkoako Txapelketa korrituko da Andoainen. Biharamunean, irailaren 18an, errepideko Gipuzkoako Txapelketa jokatu da. Azken hau, ordea, Usurbilgo kaleetan barrena.

Gipuzkoako Txapela jokoan

Amador Granadok esan digunez, "lasterketa maila handikoa izango da. Criterium baten moduan antolatuko

dugu. Zirkuitu baten inguruan korritu beharko da. Gipuzkoako Txapelketa izan arren, kanpoko txirrindulariak ere hurbilduko dira irailaren 18an".

Batetik, lasterketako irabazleak sarritu dira. Eta bestetik, lasterketako lehen gipuzkoarrak.

Ordubeteko iraupena izango du lasterketak. Kategoria ezberdineko txirrindulariak lehiatuko diren arren, denak batera korrituko dute. Esan bezala, Oiardo Kirolegian hasi eta bukatuko den zirkuitu batean arituko dira txirrindulariak.

Ordubeteko lasterketa

Lasterketa eguerdian egingo da. Ordubeteko iraupena izango du eta segidan sari-banaketa egingo da.

Amador Granadok Usurbilgo Kirol Patronatuak eta Usurbilgo Udalak emandako laguntza eskertu nahi du. Baita musu-truk lanean arituko diren lagunaren ahalegina ere.



GIPUZKOAKO TXAPELDUNA
ARGITUKO DA CRITERIUM-EAN.


Usurbilgo Lehen Criterium-a

Eguna: Irailak 18, igandea.

Ordua: 11:00 (12:00etan amaitu).

Irteera/helmuga: Oiardo Kirolegia.

Lasterketaren ibilbidea



IRAILAREN 18AN, ORDUBETEZ,
LASTERKETAREN IBILBIDEA ITXITA
EGONGO DA AUTOENTZAT.

Amador Granado bigarren izan da Europako Txirrindularitza Txapelketan

Txirrindularitza egokitu, onenen artean da Amador Granado. Iaz, Atenasko Joko Paraolimpikoetan izan zen. Duela bi aste, ordea, Europako Txirrindularitza Txapelketa ospatu zen Holandako Alkmaar hirian. Usurbilgo txirrindulariak ez zuen hutsik egin eta zilarrezko domina eskuratu zuen kilometroko proban (argazkian, ezkerretik lehendabizikoa da Amador Granado).

Iaz ere, Europako txapeldunordea izan zen kilometroko proban.



Zertarako nahi du Donostiak Zubieta?

Unai Agirre

Galdera honekin jarraituz, Donostian nahi ez dituzten hainbat azpiegiturez gain (espetxea, kuartelak, errauste planta, industri poligonoa, eta ezezkoa eman duen Ikea multinazionala), nere ustez bada beste motibobat.

Donostian 2001ean Eustaten arabera ia 14.000 etxe hutsik zeuden bitartean, espekulazioaren zurrumbiloan harrapatuak, Zubietan beste 2.400 etxebizitza egin nahi dituzte

hipodromo aldean 6 pisutako eraikinetan, eta beste 160 Zubietatik mendebaldera, Santuenearako bidean, hauek 4 pisutakoak. Azken hauetako asko Usurbilgo lurretan gainera. Hau guztia hormigoiairen negozio ilunaren konstruktoreen mesedetan. Kaltetua beste behin ere baserri giroa eta bizimodua izango da, naturgune eta berdeguneak. Beste behin ere lehen sektoreko langileak bigarren mailako hiritarrak bihurtuko dira. Bitartean noski, herri ondarea diren baserriak eta hainbat etxe eskabadoreen biktima

bilakatuko dira, tartean Lizarraga eta Izar-azpi Usurbilen eta Iruin berri eta Etxenagusia Donostian, 4 pisutako etxeek ordezkaturiko dituztenak, Donostiako Plan Partzialaren proposamenaren arabera.

Etxebizitza oinarrizko eskubidea da, ez negozioia. Amaitu dezaten espekulazioarekin gazteen eta ez gazteen mesedetan, jakinda gainera gurea bezalako lurralde txikian, azpiegiturez eta etxez hain beteta dagoena, hainbeste eraikin berri egiteak dakarren kaltea.



ZUBIETA, 2002AN.



ZUBIETA, PLAN PARTZIALAREN ARABERA.

J.ORBEGOZO
 ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
 BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

ANTXETA
 taberna-jatetxea
 ogitartekoak
 eguneroko menua
 plater konbinatuak
 EGUZKITZA, 4 USURBIL · 948 870 844

GORRITI
 edaritegia
 kafe berezial
 SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

TX
 r t
 PINTX E EZI K
 Zubiaurrenea, 5
 Telf: 943 37 10 42

ITURGINTZA

 J SE
 NGU EN

 TLF 3 3 72

Santioak



IRUDIAN IKUSIKO DUZUEN MODUAN, TXUKUN-TXUKUN JANTZITA PLAZARATU ZIREN SOKA-DANTZAKO LAGUNAK.



SANTIOTAKO IRUDI GEHIAGO, WWW.NOAUA.COM WEBGUNEAN.

Sanestebanak



EZ ZEN EGUN ERRAZA IZAN OILASKO BILTZAILEENTZAT. GUARDIA ZIBILAREN KONTROLAK, ORDEA, EZ ZUEN GAZTEEN GRINA ZAPUZTU.



SANESTEBANETAKO IRUDI GEHIAGO, WWW.NOAUA.COM WEBGUNEAN.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pin txoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Larazaintza
sartak

URTINEA
urtinea@euskalnet.net

Lareak
koroak
Landareak

San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

Udako autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25	15.00	15.20	15.25	15.45
08.00		08.25**		15.40		16.05	16.25
08.00	08.20	08.25	08.45	16.00	16.20	16.25	16.45
08.40		09.05	09.25	16.40		17.05	17.25
09.00	09.20	09.30		17.00	17.20	17.25	17.45
09.00	09.20	09.25	09.45	17.40		18.05	18.25
09.40		10.05	10.25	18.00	18.20	18.30	
10.00	10.20	10.25	10.45	18.00	18.20	18.25	18.45
10.40		11.05	11.25	18.40		19.05	19.25
11.00	11.20	11.25	11.45	19.00	19.20	19.25	19.45
11.40		12.05	12.25	19.40		20.05	20.25
12.00	12.20	12.25**		20.15	20.35	20.40	21.00
12.00	12.20	12.25	12.45	20.00	20.20	20.25	20.45#
12.40		13.05	13.25	21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.30		21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.25	13.45 #	22.15	22.35	22.45	23.05
13.40		14.05	14.25	22.00	22.20	22.25	22.45
14.00	14.20	14.30**		22.30	22.50	23.55	23.15
14.00	14.20	14.25	14.45	00.00		00.25	00.45
14.40		15.05	15.25	01.00		01.25	01.45
15.00	15.20	15.30		02.00		02.25	02.45
				04.00		04.25	04.45
				05.00		05.25	05.45
				06.00		06.25	06.45

■ Solilik larunbata gauzez # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara
 □ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiarraino

Udako autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30	14.30	14.35	15.00	15.00
06.45	07.05	07.10	07.30	14.45	15.05	15.30	15.30
07.15	07.35		08.00	14.45	15.05	15.15	15.40
07.45	08.05		08.30		15.30	15.35	15.55*
07.45	08.05	08.15	08.40	15.45	16.05	16.30	
08.15	08.35		09.00	15.45	16.05	16.15	16.40
08.45	09.05	09.30			16.30	16.35	17.00
08.45	09.05	09.15	09.40	16.45	17.05	17.30	
	09.30	09.35	10.00*	16.45	17.05	17.15	17.40
09.45	10.05		10.30	17.45	18.05	18.30	
09.45	10.05	10.15	10.40	17.45	18.05	18.15	18.40
	10.30	10.35	11.00	18.45	19.05	19.30	
10.45	11.05		11.30	18.45	19.05	19.15	19.40
10.45	11.05	11.15	11.40		19.30	19.35	20.00
11.45	12.05		12.30	19.45	20.05	20.30	
11.45	12.05	12.15	12.40	19.45	20.05	20.15	20.40
12.45	13.05		13.30	20.45	21.05	21.30	
12.45	13.05	13.15	13.40	20.45	21.05	21.15	21.40
	13.30	13.35	13.55*	21.15	21.35	21.40	22.00
13.45	14.05		14.30	21.45	22.05	22.15	22.40
13.45	14.05	14.15	14.40	23.15	23.35	00.00	
				00.15	00.35	01.00	
				01.15	01.35	02.00	
				02.15	02.35	03.00	
				04.15	04.35	05.00	
				05.15	05.35	06.00	

*Aiatic dator ■ Asteburutan, jaietan
 □ Larunbat lanegunetan ■ Solilik larunbata gauzez

Udako tren ordutegia*

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52#	-	10.21#	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.17	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38	12.54	13.09
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

*Asteegunetan bakarrik #Ez da Usurbilen geratzen

*Irailaren 11n neguko tren ordutegia jarriko da martxan

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 8, osteguna

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 9, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 10, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 11, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 12, astelehena

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 13, asteartea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 14, asteazkena

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 15, osteguna

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 16, ostirala

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 17, larunbata

Oa, Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 18, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 19, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 20, asteartea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 21, asteazkena

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 22, osteguna

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 23, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 24, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 25, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan.
 T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Iraila						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarte..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epategia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK**Lan-eskaerak**

- Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943 36 57 37.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 943 37 12 77 / 685 722 602 (Nerea).
- Udan haurrak zaintzeko esperientziadun neska euskaldun bat eskeintzen da. Egun osoko disponibilitatea. 658 759 335.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak asteberkaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. Telefonoa: 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu (690 784 113).
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943 555 835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko umeak zaintzeko. Tlf: 943372224 Kristina (gauean deitu).
- Etxekoandre bat nahi genduke etxeko lanak egin eta umea (2 urte) zaintzeko. Astean 20 bat orduko lana. 656 728 220.
- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu 943361991 telefonora.
- Pertsona bat behar dut goizetan etxeko lanak egiteko. 687406209

- Emakume euskaldun bat behar dugu irailetik aurrera lanean hasteko. Goizeko 10:30etatik 14:30tara etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 662145584.
- Kamarera behar da Antxeta jatetxean astelehenetik ostiralera lan egiteko, eguerdiko 12:30etik 16:00ak arte. 943 370 344.
- Harategian lan egiteko pertsona behar dugu, uztailean eta abuztuan. 943 37 20 34.
- Emakume heldu bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzateke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (M^a Angeles).
- Orioko ilepaindegi batean estetizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Zarautzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarrik. Interesatuak: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. Interesatuak 657633461 telefonora deitu.
- Urrezko lepoko bat bilatu da bi zintzilariokin. Galdu duenak udaltzaingoan galde dezake.
- Uztailaren 23an Euskalteleko bixera bat galdu genuen frontoia eta parkea artean. Haimar Zubeldiaren dedikatoria zuen. Topatu baduzu, deitu: 943 36 29 80.
- Trailerra saltzen da lanarekin. Interesatuak deitu 649 85 01 31.
- Kalezar azpiko erreka ondoko bide berrian beturreko batzuk topatu ditut. Galdu badituzu, NOAUA!tik pasa.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Haur baten jertse berde bat galdu dugu Zubiarrenea kaletik, San Ignazioko autobus geltoki bitartean. Aurkitu duenak mesedez NOAUA!ko egoitzan utz dezala.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajejan egon da beti. Prezioa: 9.000 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. Telefonoa: 943 36 45 54.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 - 665 749 615 gaez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Zorionak bikote!

Zorionak Txomin eta Izaskuni bere familia gutziaren partez. Abuztuaren 16an, 25. urterena ospatu zutenen, ea 50. ere elkarrekin ospatzeko moduan garen.



Zorionak Ekain eta Inaki!
Ekainek irailaren 8an egin-go ditu urteak eta Inakik, aldiz, irailaren 23an. Zorionak bioi eta muxu handi bana!



**Zorionak Xabier eta Ramon!!**

Abuztuaren 8an eta 31n izan ziren zuen urtebetetzeak eta zoriontzeko asmotan elkartu ginen. Beraz, zorionak bioi! Maite zaituztegu. Besarkada handi eta estu-estu bana. Eutsi goiari!! Estatus politikoa orain! Euskal preso eta iheslariak ETXERA!

**JAIOTZAK**

- **Uxue Mindegia Ruiz**, uztailaren 18an. Kale Nagusia.
- **Unai Mir Etxarri**, uztailaren 28an. Kale Nagusia.
- **Aimar Artetxe Barrera**, uztailaren 30ean. Kalezar.
- **Arai Esnaola Ibareguren**, abuztuaren 8an. Santuenea.
- **Nagore eta Intza Mayo Azorrasagasti**, abuztuaren 13an. Aginaga.
- **Olaia Urkia Pino**, abuztuaren 13an.
- **Telmo Diez Alcaraz**, abuztuaren 17an.
- **Oihana Atxega Golderos**, abuztuaren 28an.

HILDAKOAK

- **Patxi Esnaola Zabala**, uztailak 8. 
- **Antonio Suarez Hoya**, uztailak 17. 
- **Rufina Arin Ortiz**, uztailak 26.
- **Jose Mari Aizpuru Urkizu**, abuztuak 1.
- **Pedro Rezola Aristizabal**, abuztuak 22.
- **Julia Manso Martin**, abuztuak 24.
- **Arantxa Mendizabal Letona**, abuztuak 24.

Agenda !

Irailak 15, osteguna

-Lanbide Hastapeneko tailerretan matrikultzeko azken eguna. Informazio gehiago, Udalean (943 37 19 51).

Irailak 16/18

-Santueneko Jaiak. Egitaraua, xehetasun osoz, 16. orrialdean.

Irailak 17, larunbata

-Txokoaldeko Erroizpe elkartearen 50. urteurren-afaria. Txartelak salgai Aitzagan, Bentan, Bordatxon eta Erroizpe elkartean bertan. Afarria, 21:00etan. Ondoren, bertsolariak (Loidisaletxe, Lazkano) eta trikitalariak (Laja ta Mikel). Antolatzailea: Erroizpe elkar-tea. Babeslea: Usurbilgo Udala.

Irailak 18, igandea

-Elbarrien Lehen Criterium-a, Gipuzkoako Elbarrien Lehen Txapelketa. 11:00etan. Irteera, kirol-degitik.

- Goizeko 11:00etan, Zubietan, Endika Abril Errebote Txapelketa. Spuc eta Zubieta taldeen arteko errebote partida.

Irailak 22, osteguna

-Autorik gabeko Eguna.

Musikaren txokoa !



“Azken jazzbana”

Lajak, Enrique Legurenek eta Jose Makazaga «Ziolar»ek Elkarren eskutik plaza-ratu duten disko berria da hauxe. Xavier Cugat edo Benny Moreren orkestra handiak maila apal-apalean irudikatu nahian, orain dela berrogeita hamar urte inguru sortu ziren jazzbanak, eta gaur arte iraun



dute.

Hogei pieza grabatu dituzte, den-denak ezagunak. Batetik, arin-arin eta fandangoak eta, bestetik, “Andere”, “Kuba, bai polita dela!”, “Euskal Herri maitia” eta antzekoak, gehien-gehienak Kaxioanok euskaratuak. Diskoari ‘Azken jazzbana’ izenburua ipini diote formazio mota hori desagertzen ari delako.

Egin kontu !

Aitor Egileta, www.noaua.com webguneko nabigatzaileen esanetara

Iazko abenduan hasi zen Aitor Egiletaren abentura. Munduari itzulia emateko asmoz abiatu zen. Ordutik, bidaiaren jarraipen zehatza egiten ari gara, bereziki, noaua.com orrialdean (“Aitor Egileta, munduan zehar” atalean). Sarean dira kronika berriak; Australia, Kaledonia Berria eta Japoniatik igorritakoak.



Bidaia-kronika atseginak eta argazki zozgarriak topatuko dituzu atal horretan. Aurrerantzean, noaua.com orrialde-

ko irakurleei erantzuteko prest azaldu da Aitor. Horretarako, “Eztabaida Foroan” atal bat ireki dugu. Bertan, nahi adina galdera bota eta Aitorrek ahal duen heinean erantzungo ditu. Animo!

Industria eta iragarkeri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA POL.35-2-USURBIL

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN ALDIZKARIA ON LINE INKERTAK FORUAK FORTA
www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

I n t n n - z r n u n l k
BEMARAKOAK
BEMINIK MAIOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

K m
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

IBAI ONDO ELKARTEAK SANESTEBAN
JAIETAKO PLATER TIRAKETAN
LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI

ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE

- | | |
|------------------------------|------------------------------|
| -Iñaki Osa Harategia | -Armas Zubillaga |
| - Hotel Amara Plaza | - Aizpurua Autobusak |
| - Aialde berri | - Usurbil Autoak |
| - Tragoxka taberna | - Erroizpe Elkartea |
| - Arratzain mendiluze | - Egioleta Sagardotegia |
| - Ingemar | - Usurbilgo Udala |
| - Zumeta jatetxea | - Andres Bruño e Hijos |
| - Iruin sagardotegia | - Andatzpe Elkartea |
| - Manterola Gasolindegia | - Alamandegi jatetxea |
| - Manterola Txitxardinak | - Urdaintzi Igeltseritza |
| - Berasategi Akeitak | - Urtinea Lorategia |
| - Saltxipi Jatetxea | - Etxebeste Ardoak |
| - Telesforo Ardoak | - Embutidos Orbe |
| - Eizmendi Kirolak | - Sanestebango Jai |
| - Fagor Automotion | Batzordea |

ESKERRIK ASKO!

badator NOAUaren
gremioen gida!!

bertan azaldu

nahi baduzu

943 360 321

edo

"**publizitatea@noaua.com**" en

gaituzu



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Zer egin zabor-postatik libratzeko

Zabor-postak gure postontziak gainezkatzen ditu. **Birusek, spywareek, adwareek eta phishingek** gure sistema informatikoak arriskuan jartzen dituzte. Nola ekidin daitezkeen erakutsiko dizugu kasu praktikoen bidez, eta gainera **doakoak eta kostu baxukoak diren soluzioak azalduko dizkizugu.**

Donostialdea

irailak 20 septiembre

HERNANI

Hernani Institutua
(Karmelo Labaka)

Horario / Ordutegia:

18:00-20:00

Información e inscripciones:
Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

Arrolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:




Gipuzkoako Foru Alderdiak
Diputazioen Foruak de 12postuak



e-gipuzkoa SPRI

IRAILAREN 7tik 25ra arte

CIRCUS



SUN MAGOA

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
(7, 8, 12 - 15, 19 - 22)

18:00ETAN ETA 20:00ETAN
(ARUNBATETAN (10, 17, 24)
12:00ETAN

PAILAZOAK
GARI, MONTXO ETA JOSELONXO

OSTIRALA (16, 23)
(ARUNBATETAN (10, 17, 24)
18:00ETAN ETA 20:00ETAN



Zurengandik oso hurbil.